

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 260/2019 Erabakia, apirilaren 17koa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua berritzea

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Arautegia onartu zituen 25/2012 Foru Dekretuak, apirilaren 3ko Diputatu Kontseiluarenak, 4.2 artikulua xedatutakoaren arabera Administrazio Kontseilua Diputatu Kontseilu Akordio bidez izendatuta izango diren bost kidez gutxienez eta zazpi gehienez osatuta egon beharko da, Administrazio Kontseiluak bost kide edukiko ditu gutxienez eta zazpi gehienez; Diputatuen Kontseiluak izendatuko ditu erabaki bidez, ondoko biak izan ezik: Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua,

Kontseiluko burua izango dena, eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

Nola bi kontseilari kargugabetuko diren uko egiteagatik, Maria Pilar García de Salazar Olano, Diputatu Nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua, eta Cristina González Calvar, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua, berritu egin behar da Administrazio Kontseilua.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (foru administrazioak partaidetutako Erakundearen Erregistroko 72 agindu zenbakia) Administrazio Kontseilukide izendatzea Eduardo Aguinaco López de Suso Nekazaritza Saileko foru diputatua eta Igone Martínez de Luna Unanue, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jarduneko Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria
ELENA FERREIRA SEBASTIÁN